

Hitzaurre gisara

Espainiako tradizio dogmatikoa, edozer-
tan moralaren printzipio absolutuak, esentzia
nazional sakratuak, demokraziaren azken fun-
damentuak ikusteko joera hori, aspaldikoa da
oso; baina Espainia modernoan halaxe jarrai-
tzea gehiena sustatu duten intelektualetako
bat, Unamuno bilbotarra dugu: antidogmatista
intolerantea, defendatzen duen kausa edozein
dela ere eroa eta heroia beti, Don Kixote ber-
piztua bailitzan Espainia/Dulzinea metafisiko
baten salbatzailea, mundu guztiaren aurka eta
inorekiko konpondiorik onartu gabe.

Unamunoren handitasuna hortxe dago eta
Unamunoren anbigotasuna ere bai. Alde ba-
tetik, saldo-kultura zapal baten erdian, seriota-

8

sun erradikal absolutuaren pastore puritano hori, exigentzia beltz eta betaurrekoz jantzia, tauparazgarri zaigu. "Sé tú, tú mismo, único e insustituible". Gerra zibil ostean, konformismo katoliko erabat lauaren aurka matxinatzen, edo euskaltzaletasun folklorikoaren ordez –hori sistema frankistak toleratzen zuen– abertzaletasun borrokari bat zindoa garatzen, Salvatore Mitxelenak, Txillardegik, Jon San Martin "Otsalar"ek Unamunorengan gogaide eta laguna aurkitu dute. Unamuno espainolista itsua da, baina lehen belaunaldi abertzalea gerraostean Unamunozalea izan zen. Unamunok existentziaren, hots, bizitzaren eta ekintza publikoaren ideia tragiko, militante "fundamentalista" dauka. Borrokarako behar dena. Topikotik askatzen laguntzen du, konpromisoari lotzen. Gero, ordea, Unamuno beragandik askatu beharra dator. Unamuno askatzailea da, kondizio batekin: berarengandik ere askatzea gero, ezer positiborik eraikitzeko.

Bere handitasuna berari lagata, Unamuno ez da geure buruon ispilu txarra, batez ere gure miseriena. Hemen denok Unamuno gara nola-bait. Hau da, Unamuno gure modernitatea da; espainola, baina Euskal Herrikoa ere bai. Mo-

dernitate bat modernoa ez dena, erdi ertarotarra (“siéntome con un alma medieval”), edo “afrikarra”, Unamunok berak esango zukeenez. Ez europarra. Tradizio bat Lutero eta Descartes eta Kant gabekoa. Horregatik, barruan kontraesan eta inkoherentziaz josia gaurko munduan. Unamunorekin dauzkagun auziak, geure buruarekin ditugunak dira. Alde horretatik oso euskotarra begitantzen zait Salamancako bilbotarra. Ez dut esan gura tenperamentu nazional-edo euskotarra (horrelakorik ez dakit ba ote dagoen); baina kulturalki eta historikoki “euskaldun fededun” klasiko puskatu baten antza sumatzen zaiola.

Hala ere, menturaz haren irakurle guztiei hori jazotzen zaie, orain artean Don Miguelekin, ematen du, hari euskaldunokin bezala gertatu zaigula euskaldunoi harekin: bata bestearen bila beti pixka bat, pixka bat bata bestearen ihesi. Bihurgunezko harreman konplexua, bidean istripuak ere ez gutxi, maite-gorroto historia bat. Orain, harremanen normalizazioa hain modan dagoela, Unamunorekin harremanak normalizatzeko ere agian tenorea heldu da. Liburutxo honek –sarrera bat baino askoz gehiago, bere txikian– haste oso egokia eskain-

tzen digu. Unamunoren bizitza eta obra errepa-
satzen da bertan. Gaiaren zabal-handia mende-
ratzeko, formula txit egokia asmatu dute Soto
anaiek, bat historialaria, bestea filosofoa: atal-
txo laburretan, informazio historiko/biografikoa
eta literario/filosofikoa txandaka aurkezten dira,
arin-arin irakurketako. Idazle, filosofo, politiko
bilbotarra distantziatik, baina hurbiltasunez tra-
tatzten da. Informazio asko, txukun konbinatua,
zehatz emana. Kritiko, objektibo.

Joxe Azurmendi